

FUNTSESZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuaren negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatzen dituzte gure bazkideak. Hornitu gaitzkeen enpresa batekin hainbat arrazoiengatik itun bat ezar dezakegu, adibidez, enpresa honek gure ideia berbera izateak, hau da, emakumeen aurkako erasoak desagerraraztea. Enpresa sortzean, bankuan mailegu bat eskatzea aukera bat izan daiteke hornitzaile eta bazkide falta somatzen hasten bagara. Ondoren, enpresa ahazten joaten den bitartean enpresa batzuekin kontaktuan jartzen hasiko ginen, haien hornikuntzaren bila. Gainera, gure proiektua teknologiaren arloan murgilduta dagoenez, enpresa teknologiko batekin harremanak egitea izugarritzko abantaila izango litzateke. Arrazoi askorengatik ezar dezakegu itun bat enpresa batekin: arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko edota bere negozio-eredua optimizatzeko.